



2006. URTEKO RASFF-EKO LABURPENA
GIZA ELIKADURARI DAGOKIONEZ

elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria


Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

JAKINARAZPENETAN IDENTIFIKATURIKO ARRISKUAK


2006. urtean, Europako informazio Azkarreko Sistemaren (RASFF) bidez jasotako alertak eta jakinarazpenak murriztu egin dira, guztira **2409** jaso dira.

Aurreko urteetan bezala, 2006. urtean ere, mikotoxinek eragin dituzte jakinarazpen gehien. Mikotoxinen atzetik kutsadura kimikoa azpimarratu behar dugu, nahiz eta azken lauhilekoan murriztu egin den nabarmen.


Jarraian azalduko ditugu identifikatutako arriskuei dagozkien portzentajeak eta nolako bilakaera izan duten lauhilekoka:



Arriskuek izandako joerak hiru lauhilekoetan zehar honako hauek izan ziren:




Identifikaturiko arriskuen urteko batez bestekoa horrela geratu zen:




MIKOTOXINEK eragindako kutsadurari dagokionez, kasu gehienetan (%**85,5**) **Aflatoxinek** eragin dute. Eta, horrelakoetan, **pistatxoek** kutsaduren %**34,5** eragin dute. Horren ondotik, kakahuetea aipatu behar dugu (%**33,5**). Pistatxo gehienak (%80) Iranekoak izan dira. Kakahueteak, aldiz, %26 Txinakoak izan dira, eta %16,5 Argentinakoak.


Jarraian azalduko dugu aflatoxinek eragindako jakinarazpenek nolako bilakaera izan duten 2006. urtean:




KUTSADURA KIMIKOARI dagokionez, jakinarazpenen %27 izan dira. **Koloragarriak eta gehigarriak** alerten %45 izan dira. Dena dela, azpimarratu behar dugu hirugarren lauhilekoan murriztu egin dela portzentaia (%37) lehenengo lauhilekoaren aldean (%51). Talde honen barruan gehigarriak nabarmendu behar ditugu (%62). Produktu horiek zukuei eta frutazko karameluei eragin diete bereziki (%42). Era berean, **benzopirenoak** azpimarratu behar ditugu, %2tik %18,5era areagotu egin baitira. Horrelakoetan produkturik garrantzitsuenak ondoko hauek izan dira: arraina oliotan eta arrain ketuak.




KUTSADURA BIOLOGIKOARI dagokionez, jakinarazpenen %17 izan dira, eta talde honetan **Salmonella sp.** nabarmendu behar dugu (kutsadura biologikoen %40) (urteko batez bestekoa). Eta produkturik kaltetuenak ondoko hauek izan dira: **haragia eta haragizko produktuak (% 48)**.



Badira salmonella espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* y *S.enteritidis*); baina, horiez gain, badira bestelako salmonella espezie batzuk. Horien artean salmonella exotikoak nabarmendu behar ditugu (%75). Horien ondoren, *S.typhimurium* (%18) eta *S.enteritidis* (% 6,5) azpimarratu behar dugu. Produktuei dagokienez, *S.enteritidis*ek arrautzei eta oilasko-haragiari eragin die bereziki (kasuen %91,5). Kasu guztietan Europako produktuak izan dira. *S.typhimurium*ek, aldiz, txerri-haragiari eragin dio (kasuen %70,5). Haragi gehiena Europakoa izan da (%95).




Bestalde, METAL ASTUNAK ere aipatu behar ditugu, merkurioa bereziki. Izan ere areagotu egin da lehenengo lauhilekotik (kasuen %19) azken lauhilekora (kasuen %48,5).



IDENTIFIKATURIKO ARRISKUEN JATORRIKO HERRIALDEAK

Identifikaturiko arriskuak jatorriko herrialdeei dagokienez, nabarmendu behar dugu urtean zehar murriztu egin direla Asiako jakinarazpenak (%42,5etik %26ra). Baina Ameriketako zein Europako kasuak, aldiz, areagotu egin dira: Ameriketan, esate baterako, %9,5etik %23ra areagotu egin dira. European, berriz, %37tik %42ra, igoera ez da hain handia izan, beraz.


Azkenik, kutsaturiko produktuen jatorriko herrialdeak ondoko hauek izan dira:



2005 - 2006 URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Azken bi urteak alderatuz gero, jasotako alertak zein jakinarazpenak murriztu egin dira. Izan ere, 2005. urtean 2737 jaso ziren; eta 2006. urtean, aldiz, 2409. Hainbat aldaketa gorabehera, oro har, antzeko joerak antzeman dira. Genetikoki Eraldatutako Organismoak (OGMak) agertu egin dira eta kutsadura biologikoak murriztu egin dira (%8).

Hurrengo taulan 2005. eta 2006. urteetako aldaketak agertuko ditugu:



Gehien antzeman diren kutsadura eragileei erreparatzen badiegu konturatuko gara kasu gehienetan murriztu egin direla jakinarazpenak urte batetik bestera (murrizketa oso nabarmena izan ez bada ere):

